

MUKIZU BATI.

—Lurrian ageri ez ta
 ¿zigarrua erretzen?
 —Lurrian ageri ez ta
 ¿nola nau ikusten?

MARZELINO SOROA.



ALKATE BATEK ZENBAT DEZAKIAN.

Erri bateko Uribilguma¹
 Arri-aska bat egiten
 Abereentzat ari zan, ura
 Andikan edan zezaten;
 Baña lurretik zenbatsu jaso
 Nola eraki² etzetozen
 Lantegira bertara joanikan
 Billaldia³ para zuten.

¿Noraño, gora, jaso bear da?
 Onetan zegon auzia,
 Bañan izanik angó Alkatea
 Ainchen gizon ikasia,

Gutzizko aisa erabaki zuen
 Ain enura,⁴ chikia,
 Ondorengoentzat uzten zuela
 Alakoetako neurria.

Jarririk, bada, Alkate jauna
 Lau-oñean lurrean,
 Esan zuen batzarre aiñ
 Jakintsunaren aurrean,
 Ura edateko lusaturika:
 —Egin bedi onenbestean;
 Edozein astok irichiko du
 Nik egiten dedanean.—

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

(1) Ayuntamiento.—(2) Conforme.—(3) Sesion.—(4) Duda.